

## **Museum Cemento Rezolak eta Heidelberg Materialsek “THE OGROCAVER” erakusketa inauguratu dute aňorgARTEA gunean**

Museum Cemento Rezolak eta **Heidelberg Materialsek** aňorgARTEAren beste edizio bat inauguratu dute azaroaren 4ra arte ikusgai egongo den “THE OGROCAVER” erakusketarekin.

Erakusketan The Ogrocadaver (Iker Bengoetxea Arruti) artista aňorgatarrak hainbat teknika grafikotan, hala nola linograbatuan eta serigrafian, egindako bederatzi lan daude ikusgai, baita bere estilo pertsonalari erreparatzeko aukera ematen diguten margolanak ere. Bere sorkuntza-lanek begirada pausatua eskatzen dute lan bakoitzaren xehetasunez, artelan bakoitzaren atzean artista horren lan handia islatzen duten xehetasunez, gozatu ahal izateko.

The Ogrocadaverrek arte bisualetan gauzatzen du bere jarduera, batez ere teknika grafikoak eta margolanak landuz, hein batean musikari loturik. Arte bisualean aritzeaz gain, musika ere egiten du, Karl-Heinz Jürgenwolf izengoitiarekin.

Iker Bengoetxea Arruti Arte Ederretan doktorea eta diseinu grafiko eta arte irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Marrazketa Sailean. Besteak beste, Polonian, Alemanian, Frantzia, Serbian, Errumanian eta Errusian egon dira ikusgai bere lanak.

**aňorgARTEA gunea**

Museum Cemento Rezolak, kide den tokiko komunitateko eragile aktiboa den aldetik, bizikidetzarako eta hurbiltasunerako gune izatea helburu duten programetan lan egiten du, beste askoren artean. Museoari eta bere inguruari buruz hitz egitean ezinbestekoa da tokiko ondarea, memoria kolektiboa eta nortasuna aipatzea. Testuinguru horretan sortu zen añorgARTEA, ondarearen, kulturaren eta tokiko ingurunearen arteko bitartekaritza-gune gisa.

añorgARTEA 2023an ireki zen Añorga auzora, sorkuntza artistikoaren hainbat diziplina lantzen dituzten Añorgako bizilagunen proposamenak eta lan artistikoak ikusarazteko: pintura, eskultura, marrazketa, argazkia, etab.

añorgARTEAn, añorgatar hainbat belaunaldik beren lan artistikoak aurkezteko erakusketa gunea aurkitzen dute, museo topagune komunitario bihurtuz.

## “Hollywood Añorgara iritsi zenean”

The Ogrocadaver erakusketaz gain, Museum Cemento Rezolak “Hollywood Añorgara iritsi zenean” erakusketa hartuko du abenduaren 28ra arte. Erakusketa-gunea proiektzio-areto bihurtuko da, zinemak auzoarentzat eta bere inguruarentzat duen garrantzia erakutsiz, duela mende batetik bertako bizitza sozialean protagonista izan diren hiru proiektore eta agertokiren bidez.

Antzinako zinema-proiektoreak dira zinema auzora iritsi eta añorgatarrentzat aisialdiko jarduera nagusietakoa bihurtu arteko istorio liluragarria kontatzen diguten pieza protagonistak.

Hiru proiektore eta hiru agertokiren bidez, ibilbidea egingo da Añorgako zinemaren historian barrena, abenturazko film ahaztezinak, suspentsezkoak, “indio eta bakeroenak”, erromantikoak, “kultuzkoak”, zinema zuzendari onenen lanak eta unean uneko aktore arrakastatsuenek interpretatuak ikusiz.

## Museum Cemento Rezolari buruz

Museuma oso toki eta eraikin berezian dago, Cementos Rezolaren fabrikak 1948an langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola zaharrean. 1997an, eskola erabilerarik gabe geratu ondoren, fabrikak Peña Ganchegui estudioari agindu zion hura birmoldatzeko, museo gisa izango zuen funtzio berrira egokitzeko. Erabilera berria, baina helburu bera: inguruko jendearen artean ezagutza eta kultura zabaltzea.

Izan ere, eraikina, fabrikak bere ingurunearekin duela 170 urtetik duen konpromiso sozialaren sinbolo da. Añorgako **Heidelberg Materials** fabrika da hiriko industriaren adierazle bizi bakarra, eta beti izan du konpromiso sendoa eta lotura zuzena haren historiarekin; izan ere, bertako labeetatik atera da Euskadiko azken mendeko obrarik adierazgarrienei bizia eman dien zementua.

Museoak lehen hezkuntzako ikasleentzako berariazko hezkuntza-programa bat du, baita bigarren hezkuntzarako eta lanbide- heziketarako jarduerak ere. Ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzuteko asmoz, bisita komentatuak eskaintzen dira bertako espazio eta tailer egokitueta.

## Heidelberg Materials konpainiaren Espainiako datuak

**Heidelberg Materials** eraikuntzarako material eta soluzio integratuen munduko fabrikatzaile handienetakoa da, eta posizio liderrak ditu zementuaren, agregakinen eta hormigoia-aren merkatuan. **Heidelberg Materials** aitzindaria da karbonoaren neutraltasunerako bidean, eta 2050erako hormigoia guztia, gure azken produktua, karbonoan neutroa izateko helburua du.

Spainian, enpresaren presentzia 2 zementu fabrikak, 5 harrobik eta 4 hormigoia plantak osatzen dute, eta horiei esker integrazio bertikal ezin hobea du gure merkatu-eremuan. 170 urteko tokiko esperientziak gure bezeroei hiri eta azpiegitura seguruak, jasangarriak eta abangoardistak eraikitze-ko aukera ematen duten kalitatezko eraikuntza-soluzioak eskaintzean oinarritutako lidergoa bermatzen du. Gaur egun, gure enpresak bere ekintza guztien erdigunean jartzen ditu ingurumenarekiko, deskarbonizazioarekiko eta ekonomia zirkularrarekiko erantzukizuna.

## Museum Cemento Rezolaren irekiera ordutegia

Asteartetik larunbatera zabalik, 10:00etatik 14:00etara.

Astelehen, igande eta jaiegunetan itxita.

Sarrera doan.

## Heidelberg Materials

Prensa Kabinetea

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono-zenbakia: 94 435 63 30

Helbide elektronikoa: [j.aguado@grupombn.com](mailto:j.aguado@grupombn.com)